

**Pilar Barrios Gómez**

*Analistas Financieros Internacionales (Afi)*

**Ángel Calero Alonso**

*Analistas Financieros Internacionales (Afi)*

### Testuingurua

ELGA nazioz gaindiko erakunde ekonomikoa izan da nazioarteko finantza-kultura sustatzearren buru 2005ean *Recommendation of the Council on Principles and Good Practices for Financial Education and Awareness*<sup>1</sup> dokumentua atera zenetik. 2020an, *Recommendation of the Council on Financial Literacy*<sup>2</sup> txostena argitaratu zuen, gobernuei, beste agintari publiko batzuei eta finantza-alfabetatze politikak diseinatu, ezarri eta ebaluatzen jardueretan interesa duten gainerakoei laguntzeko helburuarekin. Txosten horrek adierazten duenez, alfabetatzeak hainbat alderdi barne hartzen ditu: finantza-erabaki sendoak hartzeko eta, azken batean, norbanakoaren finantza-ongizatea lortzeko beharrezkoak diren kontzientzia, ezagutza, trebetasunak, jarrerak eta portaerak konbinatzen ditu. Beraz, nazioen garapen-maila finantza-ezagutzarekin lotuta dago, horri esker hobeto uler baitaitezke krisiaren arriskuak eta horrek enplegu-mailan, ekonomian, herrialdeen zor publikoan eta, azken batean, ongizate ekonomiko eta sozialean izan dezakeen eragina<sup>3</sup>.

Finantza-portaera arduratsua bultzatzeko, oinarritzko ezagutzak eskuratzeko beharrezko tresnak eman behar zaizkie herritarrei, beren finantzei buruzko erabaki egokiak har ditzaten, eta produktu eta zerbitzuei buruzko informazioa eta azalpenak eskura izan

ditzaten. Digitalizazioaren hazkundera ere aprobetxa daiteke finantza-hezkuntza sustatzeko interesa dutenen eragina optimizatzeko, aukera ematen baitu informazioa pertsona gehiagorengana helarazteko.

Hezkuntza, oro har, eta finantza-hezkuntza, bereziki, funtsezko zutabeak dira nazioen eta gizabanakoen aberastasuna handitzeko, finantza-inklusioa errazten baitu eta, hartara, haien bizi-kalitatea hobetzen du. Bitarteko digitalen hedapenarekin, banku digitaletatik hasi eta kriptoaaktiboetaraino, finantza-

Hezkuntza, oro har, eta finantza-hezkuntza, bereziki, funtsezko zutabeak dira nazioen eta gizabanakoen aberastasuna handitzeko, finantza-inklusioa errazten baitu eta, hartara, haien bizi-kalitatea hobetzen du. Bitarteko digitalen hedapenarekin, banku digitaletatik hasi eta kriptoaaktiboetaraino, finantza-hezkuntza giltzarri bihurtu da....

hezkuntza giltzarri bihurtu da, eta Munduko Bankua bezalako erakundeek denbora asko daramate haren eragina nazioartean aztertzen<sup>4</sup>. ELGAren *Going Digital*<sup>5</sup> txostenak nabarmentzen duenez, «pertsonak, enpresek eta gobernuek gaur egun beste era batera egiten dute bizitza, harremanak, lana eta ekoizpena, eta aldaketa horiek azkar

ari dira areagotzen». Pandemiak aldatu egin ditugure portaerak eta, ondorioz, aldaketak eragin ditu hezkuntzan. EINen arabera<sup>6</sup>, diru-sarrerara txikieneko tartean, haurrak dituzten Espainiako etxeen % 9,2k ez dute Internetarako sarbiderik, hau da, 100.000 etxe inguruk. Beraz, arrakala digitala hezkuntza-arrakala bihurtu da. Kanal digitalen bidezko prestakuntza ahalbidetuz gero, hezkuntza-zerbitzuak erraz eta erregularitasunez eman ezin diren eremuetara irits daiteke; baina, horretarako, pertsonen interesa eta

1. ELGA, (2005). <https://www.oecd.org/daf/fin/financial-education/35108560.pdf>  
2. ELGA, (2020). [OECD Legal Instruments](https://www.oecd.org/finance/financial-literacy/).  
3. Díez, J.C., (2022). [Educación financiera y digitalización | Orfin](https://www.orfin.es/).

4. Munduko Bankua, (2014). <https://documents1.worldbank.org/curated/en/901211472719528753/pdf/108104-BRI-FinancialEducationProgramsandStrategies-PUBLIC.pdf>  
5. ELGA, (2019). [Going Digital: Shaping Policies, Improving Lives | en | OECD](https://www.oecd.org/going-digital/)  
6. EIN, (2019). [Encuesta sobre Equipamiento y Uso de Tecnologías de Información y Comunicación en los Hogares. \(ine.es\)](https://www.ine.es/).

trebetasun digitalak hobetzeaz gain, Internet eta gailuak erabiltzeko aukera ere erraztu behar da. Aukera berdintasuna handitzeko bideak dira informazioa eskuratzeko ahalmena eta garrantzizkoena hautatzeko, hura interpretatu eta norberaren beharretara egokitzeko gaitasunak handitzea. Eta, jakina, helburu hori lortzeko formatu digital horretara egokitutako edukiak behar dira, kolektibo eta prestakuntza-maila desberdinetara egokituak.

## Finantza-hezkuntza digitalizazioaren aurrean

Digitalizazioak bete-betean eragiten die ekonomiari eta, oro har, gizarteari, eta modu esanguratsuan eragiten dio finantza-sistemari, bai eskariari bai eskaintzari<sup>7</sup>. Abiadura-palanka bat da, erabakiak erraztu eta prozesuak laburtzen dituen, eta bankurik erabiltzen ez duten pertsonentzako finantza-zerbitzuak azkar eskuratzeko bidea ematen duena; finantza-inklusioarekin parekatu ohi da. Dalal<sup>8</sup> adierazten duenez, «modu egokian eta zerbitzu osatuekin eginez gero, prestakuntza barne, digitalizazioak finantza-kalteberatasuna benetan hobetu dezake». Gainera, kostuak murrizten dira eta erosotasun handiagoa dakar. Baina hori erabiltzeko gaitasunak falta baditugu, inklusio-tresna horrek, bere funtzioa ez betetzeaz gain, arriskuak areagotzen ditu eta beste batzuk agertzen dira, hala nola, datuen transmisio desegokia, salmenta desegokiak, ziberdelituak, iruzurra eta kapitalen

(...) «modu egokian eta zerbitzu osatuekin eginez gero, prestakuntza barne, digitalizazioak finantza-kalteberatasuna benetan hobetu dezake». Gainera, kostuak murrizten dira eta erosotasun handiagoa dakar. Baina hori erabiltzeko gaitasunak falta baditugu, inklusio-tresna horrek, bere funtzioa ez betetzeaz gain, arriskuak areagotzen ditu eta beste batzuk agertzen dira, hala nola, datuen transmisio desegokia, salmenta desegokiak, ziberdelituak, iruzurra eta kapitalen

zuriketa, besteak beste<sup>9</sup>. Gainera, Sanz Bayónek<sup>10</sup> dioenez, «gizartean beharrezkoa den hausnarketa murriztea eragin dezake, pentsamendu kritikoaren funtzioa eta ezagutza sortzea oztopatuz, eta tresna digitalekin ohituta ez dauden edo finantza-ezagutza gutxi duten erabiltzaileentzako erronka bat gehituz, ez baitute beti aholkularitza eskaintzen produktu edo zerbitzuen kontratazio digitalean». Bankuez aparteko bitartekariak ugaritzeak erakunde ikuskatzaileen helmenetik kanpo dagoen beste arrisku-iturri bat dakar: «itzaleko bankua» deritzona. Era berean, portaeraren ekonomiaren eta finantzen arabera, kontsumitzaileei informazioa aurkezteko moduak haien erabakiak baldintza ditzake, eta **teknologiaren erabilerak jokabide-joerak eta epe laburreko joerak areagotu ditzake**. Beharrezkoa da erabiltzaileak finantza-produktu edo -zerbitzuaren ezaugarrien berri izatea eta hartatik eratorrien eta kontratatzean

hartzen dituen arriskuen berri izatea<sup>11</sup>. Horregatik, sarerako sarbidea handitzea bezain garrantzitsua da erabiltzaileen hezkuntza indartzea, beharrezko alfabetatze digitalaz gain, sareak eskaintzen dituen aukeren artean modu arduratsuan hautatu eta erabakitzeak aukera emango duen hezkuntza orokorraz hornituz. Hemen ere, ezagutza da askatasunaren funtsa<sup>12</sup>.

Finantza-hezkuntzaren aldeko apustua egiteko, hari buruzko ezagutza

zabaltzeko eta digitalizazioaren bidez hura hedatzea errazteko esparru horren baitan, hiru banku-elkarteek (AEB, CECA eta UNACC) *Aula Financiera Digital*<sup>13</sup> jarri zuten martxan, irisgarritasunarekin konprometitutako finantza-hezkuntzaren eta hezkuntza digitalaren plataforma, hiru erakundeek

7. Domínguez Martínez, J. M., eta López Jiménez, J. M. (2019). «Transformación digital y educación financiera: cuestiones básicas», [WP-1-2019.pdf \(edufinet.com\)](#).  
8. Dalal, P. (2021). *EduFin Summit Financial Vulnerability And How To Reduce It*. BBVA's Center for Financial Education and Capability, <https://www.bbvaedufin.com/wp-content/uploads/2021/10/EduFin-Position-Paper-ENG-5.pdf>

9. ELGA, (2017). [Ensuring financial education and consumer protection for all in the digital age - OECD](#).  
10. Sanz Bayón, P. (2019). [Desafíos jurídicos del mercado ante la revolución digital \(Legal Challenges of the Market Before the Digital Revolution\) by Pablo Sanz Bayón :: SSRN](#)  
11. Domínguez Martínez eta López Jiménez, op. cit.  
12. Ontiveros, E., (2019). *Excesos. Amenazas a la prosperidad global*. Planeta.  
13. AEB, CECA eta UNACC. <https://www.aulafinancieraydigital.es/>

bi arlo horietan dituzten ekimenak biltzen dituen. Plataforma horrek bat egiten du Espainiako Bankuaren, CNMVren eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioaren *Finanzas para todos*<sup>14</sup> programarekin. Proiektu hori 2008an sortu zen, Europako Batzordearen gomendioei jarraituz eta ELGAREN Finantza Hezkuntzako Nazioarteko Sareak (INFE)<sup>15</sup> definitutako finantza-hezkuntzako estrategia nazionalei buruzko goi-mailako printzipioak<sup>16</sup> kontuan hartuta.

Domínguez Martínez eta López Jiménezek diotenez<sup>17</sup>, digitalizazioak finantza-hezkuntzako programetan aldaketak eta egokitzapenak egitera behartzen du, hala nola:

- Edukietan: operadore, kanal, finantza-zerbitzu digital eta oinarrizko erregulazio-alderdi berriak.
- Finantza-zerbitzu digitalen erabiltzaileak babesteari eta ingurune berri horretan izan daitezkeen arriskuak identifikatzeari dagokionez.
- Jokaera-joerei dagokienez.
- Tresna digitalak ezagutzak transmititzeko baliabide gisa erabiltzeari dagokionez.

Hala ere, finantza-hezkuntzako programa horiek abian jartzeko ahaleginak egin diren arren, digitalizazioan oinarrituta egon nahiz ez, programa horien eraginkortasuna zalantzan jarri da zenbait ikerketatan, biztanleriaren finantza-kulturan dauden gabeziak aztertu ondoren. Adibidez, FUNCASek *¿Es la educación financiera una asignatura pendiente en el sistema educativo español?*<sup>18</sup> txostena egin zuen; bertan Espainiako kasua ikertzen du Ikasleak Ebaluatzeko Nazioarteko Programaren (PISA) datuen bidez, bigarren hezkuntzako ikasleek dituzten finantza-gaitasunak egiaztatzeke. Emaitzek erakusten dutenez, gaitasun hori hezkuntza-sisteman sartzen hasi

berria da, eta ez dago eredu uniformerik. Analisi hori interpretatzean kontuan hartu behar dugu Espainian gaitasun hori tratatzeko modu berezia, baina, hala ere, irakasteko metodologia berregituratzeko premia erakusten du.

## Datu berri batzuk

Ballesteros eta Gómezen txostenak<sup>19</sup> aukera ematen digu Estatuko ikastetxeek eraldaketa digitalari dagokionez duten egoera ezagutzeko, esku hartzen duten arduradunei egindako kontsultei esker, eta agerian jartzen du hobetzeko aukera dagoela; izan ere, % 54,5ek *online* prestakuntzen erabilera babesten duen arren, ikastetxeen % 43,6k soilik du Zentroa Digitalizatzeko Plan bat. Halaber, prestakuntzan teknologia berriak erabiltzeko zailtasunaren arrazoen artean, hauek nabarmentzen dira: irakasleen denbora falta (% 70,9), familien gaitasun digital txikia (% 61,8) eta IK Tetan gaitasun digital nahikorik ez duten irakasleen ehunekoa (% 51,8), hurrengo grafikoan ikus daitekeenez.

14. Espainiako Bankua, CNMV eta Mineco. <https://www.finanzasparatodos.es/>

15. ELGA-INFE. <https://www.oecd.org/financial/education/>

16. ELGA, (2014). Finantza-hezkuntzako estrategia nazionalei buruzko ELGA/INFEn goi-mailako printzipioak, <https://www.oecd.org/financial/education/oecd-infe-high-level-principles-on-national-strategies-for-financial-education-spanish.pdf>

17. Domínguez Martínez eta López Jiménez, op. cit.

18. FUNCAS, (2021). <https://www.funcas.es/articulos/es-la-educacion-financiera-una-asignatura-pendiente-en-el-sistema-educativo-espanol/>

19. Ballesteros Guerra, J. C., eta Gómez Miguel, A. (2022). *Oportunidades y desafíos de la educación digital desde la perspectiva de los centros educativos*. Madril: Fundación FAD Juventud. <https://www.campusfad.org/download/34057/>

**1. grafikoa.** IKTak irakaskuntzan eta ikaskuntzan txertatzeko ikastetxean gehien eragiten duten faktoreak. Aukera anitzeko galderak. Datuak ehunekotan. Laginaren oinarri osoa (N = 110)



*Iturria:* Ballesteros Guerra, J.C., eta Gómez Miguel, A. (2022). *Oportunidades y desafíos de la educación digital desde la perspectiva de los centros educativos*. Madrid: Fundación FAD Juventud.

Bestalde, *Informe Ejecutivo de Educación Financiera 2020-2021*<sup>20</sup> txostenak arlo horretan egindako jardueren datuak argitaratzen ditu, CECAren kide diren erakundeek 2020-2021 urteetan garatutako finantziarioaren, jardueren eta programen laburpena eginez; izan ere, pandemiak eragindako egoera berezia zela eta, programak hurrengo ekitaldira arte luzatu ziren. Epe horretan, digitalizazioaren aldeko apustu garbia egin da: inbertsioaren % 86 eta jardueren % 60 dagokio. Gaiei dagokienez, ekintzailetzak, ETE eta autonomoek eta landa-eremuak % 25eko pisua dute; ondoren, aurrezkiak, gastua eta aurrekontua (% 20) eta jarraian jasangarritasuna, digitalizazioa eta zibersegurtasuna (% 14). Gainerakoak honela banatzen dira, pisu handiena dutenetatik hasita: inbertsio-produktu eta zerbitzuak, aseguruak, ordaintzeko

bitartekoak, bankuko produktu eta zerbitzuak, enplegua-langabezia-autoenplegua eta pentsioak. Inbertsioaren % 54 (ia 4,3 milioi euro) 25 urtetik beherakoentzako programetara bideratu da. 65 urte arteko helduentzako programak inbertsioaren % 37 izan dira, eta gainerako % 9 65 urtetik gorakoentzat.

### Amaierako ondorioak

Digitalizazioak finantza-sektorean gero eta protagonismo handiagoa duenez, eta horrek abantailak dakartzan arren beste arrisku batzuk gehitu edo handitzen dituen bezala, beharrezkoa da finantza-hezkuntzako jarduerak eta programak berrikustea, haien edukiak, metodologiak eta eraginkortasuna aztertuz. Digitalizazioak finantza-inklusioko ere bultzatzen du, baina arrakala digitalei lotutako beste desoreka batzuk eragin ditzake; hala, gutxieneko

20. CECA, (2022). *Informe ejecutivo educación financiera 2020-2021*, [https://www.ceca.es/wp-content/uploads/2022/09/IE\\_Educacion-financieraCECA2020-21\\_20220728-1.pdf](https://www.ceca.es/wp-content/uploads/2022/09/IE_Educacion-financieraCECA2020-21_20220728-1.pdf)

finantza-gaitasun maila batean oinarritu behar du, eta ager daitezkeen jokabide-joerei erantzun behar die. Era berean, digitalizazioak arlo horretako prestakuntza-ekintzak errazten ditu, eta, behar bezala ebaluatzeko, kontuan hartu behar dira bai horien helburuak, bai dagokien publikoaren beharrak eta trebetasunak, eta bitarteko horren bidez prestakuntza jasotzeko aukera; horretarako, zeharkako ikuspegia erabili behar da, eta lortutako emaitzak behar bezala neurtu behar dira. Domínguez Martínezen arabera<sup>21</sup>, finantza-

hezkuntzaren arloko jardueren eraginkortasuna handitzeko, hiru oinarriko ikuspegi baten bidez garatu behar dira: eskola-etapako irakaskuntza, mantentzeko eta eguneratzeko prestakuntza-ekintza errepikakorrak, eta bizi-zikloan zehar ad hoc egindako beste ekimen batzuetan parte hartzea, erabaki esanguratsuak direla eta. Finantza-hezkuntza epe luzeko lana da, eta, finantza-kultura hobetzen laguntzeaz gain, sistemaren egonkortasunari, gizarte-kohesioari eta finantza-inklusionari ere laguntzen dio. ■

21 Domínguez Martínez, J. M. (2022). *Tiempo Vivo : Educación financiera: viejos y nuevos retos* ([neotempovivo.blogspot.com](http://neotempovivo.blogspot.com))